

PRENTSA OHARRA

Naukas Bilbao, zientzia eta umorearen ikuskizunik handienak, 15. urteurrena ospatuko du

Naukas plataformak eta EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatuta, ekitaldiak asteburu honetan izango du itzulera, zientzia ezagutza modu erakargarrian hurbiltzeko bakarrizketen, esperimentuen eta ikuskizunen bidez

Berrogeita hamar ikertzaile eta zientzia dibulgatzaile baino gehiago igoko dira Euskalduna Bilbaoko eszenatokira ostiralean eta larunbatean, edizio berezi hau ospatzeko

Txikienentzat, igandean bi ikuskizun zientifikoko eta zortzi tailer antolatuko dira Naukas Kids-en baitan Bizkaia Aretoa-EHU eraikinean

Bilbon, 2025eko irailaren 18an. Beste urtebetez -hamabost, dagoeneko-, asteburu honetan itzuliko da dibulgazio zientifikoko ikuskizunik handiena, **Naukas Bilbao**. Bere formula paregabearekin itzuliko da, zientziaren ezagutza era samur eta askean gerturatzeko duen formula paregabearekin. [Naukas](#) dibulgazio zientifikoko plataformak eta [EHUko Kultura Zientifikoko Katedra](#) elkarlanean antolatuta, ekimenak bertako eta estatuko 50 dibulgatzaile baino gehiago bilduko ditu ostiral eta larunbat honetan.

Bihar, irailak 19, eta etzi, irailak 20, 10 minutuko zientzia-bakarrizketa, ikuskizun eta esperimentuekin gozatu ahal izango du publikoak. Aurtengoa, urteurren berezia izanda, eduki aldetik ere apartekoa izango da. Nabarmenezkoa da, esate baterako, **Naukas Pro** egitarau orokorrean txertatuko dela. Bertan, zientzialariek eta ikerketa zentroetako kideek proiektuak eta esperientziak partekatuko dituzte. Beste hainbat proposamenen artean, **Eva Garnica** sikiatrak mikrobiotaren eta osasun mentalaren arteko harremana azalduko du, eta **Judith Rivas** matematikariak euskal dantzen eta matematikaren artean dagoen lotura liluragarria.

Etorriko diren hizlari berriekin batera, Naukas Bilbaoko publikoarentzat ezagunak egingo diren aurpegiak ere izango dira hamabosgarren urteurren honetan, esate baterako **Luisma García Escudero** biologoa edota **Daniel Torregrosa** kimikaria. Lehenengoak intsektuen begien tolesturen inguruan hitz egingo du. Bigarrenak George Gamow mekanika kuantikoaren aitzindariari omenaldia egingo dio, diziplina honen inguruan ehundu diren hainbat mito argituz.

Solasaldi berezi bat ere izango da aurten Euskalduna Bilbaoren auditorioan. Protagonistak **Antonio Martínez Ron** kazetaria eta **Eloísa del Pino** Consejo Superior de Investigaciones Científicas-eko (CSIC) presidentea izango dira. Sarrera doan,

aretoaren edukiera bete arte. Bertaratzeko aukerarik ez dutenek, zuzenean ikusi ahal izango dituzte, *streaming* bidez, EiT Bren [Orain](#) kanalaren bitartez.

Naukas Kids: zientzia dibertigarriena

Bukatzeko, irailaren 21ean, igandean, txikientzat bi ikuskizun zientifiko eta zortzi tailer antolatuko dira **Naukas Kids**-en baitan Bizkaia Aretoa – EHU eraikinean. Gerturatzeko direnek, besteak beste, zientziak eta magiak bat egingo duten espektakulua bizitzeko aukera izango dute, edota euren planeta propioa sortzeko, itsasoaren sakontasunak esploratzeko edo etxean egin daitezkeen esperimientuen bitartez bizitzarako trikimailuak ikasteko.

Ekintzak 10:00etatik 14:00etara egingo dira (ateak 9:30ean irekiko dira). Sarrera dohainik izango da, edukiera bete arte. Aurreko edizioetan gerturatu zen publiko kopuru handia kontuan izanda, garaiz etortzea gomendatzen da, ekintzetan parte hartu ahal izango dela bermatzeko.

Naukas Bilbao [Bilbo Zientzia Plaza 2025](#) inizatibaren plater nagusia izango da. BZP [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutako zientzia-dibulgazioko ekimena da, [Bilboko Udalaren](#) eta [Euskampus Fundazioaren](#) babesarekin eta [Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila](#), [Donostia International Physics Center \(DIPC\)](#), [Metro Bilbao](#) eta [EiTB](#) erakundeekin laguntzarekin. Aurtengoan, irailaren 17tik 30era ospatuko da. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [prentsa dossiera](#) aktibikate guztiekin.

NOTA DE PRENSA

Naukas Bilbao, el mayor espectáculo de ciencia y humor, celebra su 15º aniversario

El evento, organizado por la plataforma Naukas y la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, vuelve este fin de semana con monólogos, experimentos y espectáculos para acercar el conocimiento científico de manera sencilla y desenfadada

Más de cincuenta investigadores y divulgadores del conocimiento científico se subirán el viernes y el sábado al escenario del Euskalduna Bilbao para celebrar esta edición especial

Esta edición culminará el próximo domingo 21, con ocho talleres y dos espectáculos dirigidos a los más pequeños de la casa en Naukas Kids

Bilbao, 18 de septiembre de 2025. Un año más -y ya van quince- el mayor espectáculo de divulgación científica, Naukas Bilbao, regresa este fin de semana con su fórmula única para acercar el conocimiento científico a la sociedad de manera sencilla y desenfadada. Organizado por la plataforma de divulgación científica [Naukas](#) en colaboración con la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), el evento reunirá mañana, viernes 19, y el sábado 20 de septiembre a más de medio centenar de divulgadores del panorama científico vasco y estatal.

Durante dos días, el público podrá disfrutar de monólogos de 10 minutos, espectáculos y experimentos científicos desde el Euskalduna Bilbao. Esta edición especial aniversario promete grandes novedades. Destaca la incorporación al programa general de **Naukas Pro**, sección en la que científicos y miembros de centros de investigación comparten sus investigaciones y experiencias. Entre otras propuestas, la psiquiatra **Eva Garnica** explicará ante el público la relación entre la microbiota y la salud mental, y la matemática **Judith Rivas** mostrará la fascinante conexión entre las danzas vascas y las matemáticas.

Junto a las nuevas incorporaciones, también participarán en el decimoquinto aniversario del evento rostros conocidos para el público de Naukas Bilbao como el biólogo **Luisma García Escudero**, que pondrá el foco en las dobleces de los ojos de los insectos, o el físico **Daniel Torregrosa**, que homenajeará al pionero de la mecánica cuántica, George Gamow, y desmontará algunos falsos mitos que se han tejido alrededor de esta disciplina.

Además, el periodista **Antonio Martínez Ron** conversará con **Eloísa del Pino**, presidenta del Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC), desde el auditorio del Euskalduna Bilbao. La entrada es libre hasta completar aforo. Quien no pueda acudir a Euskalduna Bilbao, podrá seguir el evento vía streaming a través del canal [Orain](#) de EITB.

Naukas Kids: la ciencia más divertida

Para cerrar esta edición aniversario, el público infantil podrá disfrutar de dos espectáculos científicos y ocho talleres en **Naukas Kids** el próximo domingo 21. Quienes acudan a Bizkaia Aretoa - EHU tendrán la oportunidad de vivir un espectáculo en el que la ciencia y la magia se hacen uno, crear su propio planeta, explorar las profundidades marinas o aprender trucos para la vida mediante experimentos caseros.

Las actividades se desarrollarán de 10:00 a 14:00h (apertura de puertas a las 9:30h). Todas las actividades son gratuitas. Debido a la alta afluencia de público de ediciones anteriores, se recomienda presentarse con antelación para garantizar la participación en alguna de las actividades.

Naukas Bilbao forma parte de [Bilbo Zientzia Plaza 2025](#), una iniciativa de divulgación científica organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), con el patrocinio del [Ayuntamiento de Bilbao](#) y [Euskampus Fundazioa](#), y la colaboración del [Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco](#), [Donostia International Physics Center \(DIPC\)](#), [Metro Bilbao](#) y [EiTB](#). Esta edición se celebra del 17 al 30 de septiembre. Para más información consulta el [dossier de prensa](#) con todas las actividades programadas.